

ERDU PRESS


ARRIETA • FRUIZ • GAMIZ-FIKA • MEÑAKA

EUSKARA ZERBITZUA

34. zk.

2009ko garagarrila

HEMEN DA UDA





HASI DIRA UMEENTZAKO UDAKO JOKO ETA JOLASAK.

Heldu da garagarria eta hasi dira ume eta gaztetxuentzako udako joko eta jolasak. Udako jokoak hasteaz batera gure udalerririk berpiztu egiten dira, bizia hartzen dabe. Izan be, orain arte ia-ia inor be barik euki doguzan plaza, frontoi, ugerleku eta bazterrak egun honeetan umez eta zalapartaz bete jakuz eta hori, egia esan, gureak bezalako herritxuentzat pozgarria da sano.

EUSKALDUNEN LAN-POLTSA

Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udaletako euskera zerbitzuek euskaldunen zerrendak osatu dabez umeak jagoteko, nagusiak jagoteko, begirale beharretan ibilteko zein partikularrak emoteko prest dagozan euskaldunakaz. Guztira dozena bat lagun agertu dira prest aitatu doguzan behar horreek egiteko. Izena emon dabenen informazioa eta telefonoak udal antolatzaileetan dagoz. Herritarren batek zerbitzu horreen premia eduki eta zerrendetan izena emon dabena kaz harremanetan jarri gura badau, udaletxera deitzea baino ez dauko.

ANTXINAKO ARGAZKIAK 2010EKO EGUTEGIRAKO

Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fikako Udalek 2010eko egutegiak prestatzen hasita dagoz. Aurreko Erdu Press aldizkariaren bidez antxinako argazkiak eskatu genduazan egutegirako, eta hainbat herritarrek etxean eukiezan "altxorak" ekarri deuskuez. Eskerrik asko guztioi !!!

Meñakako udal liburutegian 5 eta 12 bitarteko umei zuzendutako **TXOTXONGILO TAILERRA** egin zan bagilean. Tailerra SIC Zerbitzu kulturalaren eskutik egin zan eta saioa aurrera eroateaz Laura arduratu zan. Guztira 17 ume hartu eben parte. Umeek txotxongilo bana egin eben eta gero taldeka gidoitxo batzuk prestatu eta txotxongilo antzerkitxo bat egin eben.



ARRIETARRAK LARRUNERA

Urtero, garagarrian, Arrietako Udalar urteera antolatzen dau herritar guztientzat. Aurtengoa garagarriaren 18an egingo da (zapatua) eta eguna pasatzeko Larrun eta inguruko parajeak aukeratu dabez. Ziur ederto batean ibiliko direla.

FILM EMONALDIAK GAMIZ-FIKAN

Igaz hasi zan Gamiz-Fikako Udala herrian pelikulak emoten. Orain arte egindako emonaldi guzti-guztiek oso harrera ona izan dabela kontuan izanda, opor sasoiari film batzuk eskaintzearena ari dira aztertzen udaletik. Egon adi kartel eta paneletara!!

"SAN INAZIO" ARGAZKI LEHIAKETA

Garagarriaren 31n, San Inazio egunean, aspaldiko ohitura daukie arrietarrek txokolate beroa hartu eta 6:00ak aldera oinez Gaztelugatxeko Donienera abiatzea. Urteroko ibilaldi hori gaitzat hartuta Arrietako Udalar ARGAZKI LEHIAKETA antolatzen dau. Aurtengoa X. edizioa izango da eta orain arteko bideari jarraituta sariak irailean banatuko dira asteburu kulturalaren barruan. Lehenengo saria 80 €, bigarrena 40 € eta hirugarrena 30 €. Animatu zaitezie!!!



"LAMIÑE" ABESBATZA

ETBko "Oh happy day" saiorako izena emon eta casting-ekaz hasteaz batera, Fruizko "Lamiñe" abesbatzekoak lotu barik ibili dira, egunari handik eta hemendik ordutxu batzuk lapurtu eta egunero, hutsik egin barik, herriko frontoian alkartu eta entsaiatzen.

Irabazi zein galdu, oso pozik dagoz egin dabene lanagaz eta gure herria ezagutzera emon ahal izan dabelako.

ARRIETA

GAZTE MUSIKARIEN VII. KONTZERTUA

Arrietako Udalak eta Saramus kultur elkarteak antolatutako gazte musikarien kontzertuaren aurtengo edizioan be danetariko musika tresna eta soinuakaz gozatzeko parada izan genduan. Hona hemen egun horretako "perla" batzuk:



Ikusleek adi-adi entzun ebezan musikari gazteen emanaldiak.



Arratsaldea musika tailerra egiteko aprobetxatu zen

ARRIETAKO UDALAK TOPAKETAK ANTOLATU DAUZ "BIZILORE" ALKARTEAGAZ BATERA

Lehenengo topaketea martian egin zan eta bigarrena maiatzean, ekimen honen helburu nagusia bertoko lora eta landareak ezagutzera emotea izan da. Topaketek herritarren artean izan daben harrera ona kontua hartuta, jarraipena eukiko dabelakoan gagoz.



ARRIETAKO ERMITETATIK IBILALDIA

Europako ondareen inguruko jardunaldiak dirala eta hainbat ekimen egingo dira han eta hemen. Arrietan, esate baterako, urriaren lehenengo zapatuan orain arte abuztuan egin izan dan Arrietako ermitetatik ibilaldia egingo da.



FRUIZKO JAIAK

(ABUZTUAK 5-12)

Jai Batzordea "jo ta fuego" ibili da eta dabil aurtengo jaiak prestatzen. Hona hemen egitarauaren aurrerapentxo bat:

ABUZTUAK 5 (EGUAZTENA)

20:00etan txupinazoa

ABUZTUAK 6 (EGUENA) SALBADORE EGUNA

12:00etan mezea

15:00retan herri bazkaria, tiketak salgai uztailaren 1etik 31ra Herriko tabernan.

19:00retan erromeria

ABUZTUAK 7 (BARIKUA)

Gaueko 23:30etan hasita:

SEI URTE

MAITIPS (Kataluinatik)

TRIKIZIO

DISKOFESTA

ABUZTUAK 9 (DOMEKA)

NEKAZARITZA AZOKA

ABUZTUAK 10 (ASTELEHENA) SALLEBANTE EGUNA

12:00etan MEZEA

13:30etan TRIKITIXEA

ABUZTUAK 11 (MARTITZENA)

19:00retan TORTILLA TXAPELKETA

20:30etan SARI BANAKETEA

ABUZTUAK 12 (EGUAZTENA)

21:00etan MUSIKA

Ostean, luntxa eta zozketa



FRUIZKO V. IBILALDIA


Ekainaren 21ean egin zan Fruizko mendi ibilaldia. Aurreko edizinoetan bezala ibilbide bi egon ziren aukeran: luzea, 18 kilometrokoa eta laburra, 7 kilometrokoa. Kirkiñitu mendi taldekoak pozik agertu dira izandako parte hartzeagaz, eta eskerrak emon gura deusiez parte hartzaileei eta zelan ez, antolaketan lagundu daben guztiei.

Hemen doatsue egindako ibilbidea, ia orain uda partean astitsuago gagozala-eta, gure bazterrak ezagutu eta gozatzeko tarte bat ateratzen dogun!



FRUIZ-Jainko-Otsagarai-Ikoa-Ikosta-Gereka-FRUIZ

Ibilbide handia 18 km



GAMIZ-FIKA

MOTO KONTZENTRAZINOA

euki genduan Fikan maiatzaren 16an; giro oso ona egon zan eta egia esan, lehenengo aldia izateko, arrakasta handia euki eban. Kontuan hartuko da, ba, datorren urteari begira!!



II. IRAKURKETA LEHIAKETA

Apirilaren 25ean, Fikako KZ gunean hainbat irakurle gazte batu ziran ipuin saioa entzun eta irakurketa lehiaketan egindako lanagaitik saria jasotzera. ZORIONAK guztioi eta datorren urtera arte.



GAMIZ-FIKAKO VIII. NEKAZARITZA ETA ARTISAUTZA AZOKA

Maiatzaren 31n Gamiz kolorez bete zan, soinuz, usainez, zaporez. Ez zan ezer falta izan. Urtero lez, aurten be kantitate eta kalitatea, biak batera, biak eskutik, etorri jakuzan. Nekazaritza arlotik 14 erakustoki egon ziran, artisautzako 17. Herri kirolek euren tarte izan eben. Herriko korua eta trikitilariak ezinbestekoak doguz girotzeko. Eta aurten go azokeari behar dan moduko amaierera emoteko... falta zan bakarra!!! putxeratan egindako indaba gozo-gozoak !!!



FELIX ZUBIAUR (Felizier)

Lehenengo ekainak 6an Felix Zubiaur Felixier jaio zala ehun urte bete ziran. Hori dala eta liburua aurkeztu zan Meñakan, Karlos Ibarzabalen lan eskergari esker. Ehun lagunetik gora bildu ginan aurkezpenean eta gauza sano bitxiak aitatu ziran bertan. Esaterako Aita Luis Baraiazarraren sarrera berbalditxoa. Horrexegatik Erdu Press-en argitaratutea interesgarria iruditu jaku. Hemen dogu Luis Baraiazarraren berbalditxoa hitzez hitz.



“Ohartxu bat eginez, hasiko naz: Liburuan esaten danez, berari berba egikeran Felix izena erabiltzen zan, baina geure artean bera aurrean ez zala, beti Felizier. Nik, dana dala, errespetuz aitatuko dot hemen eta Felix esango deusat gehienetan...”

Gauzak osotasunean eta ondo ikusteko, komeni dan distantzia hartu behar ei da. Lar hurretik koskak, urte-nuneak, mantxak, zirrimarra nabarmenak agertzen dira. Mendiei ez jake erretratua bertatik egiten, aurrez aurre dagoan goialde batetik eta behar dan distantzia hartuta baino. Liburu honetan halan egin da. Tarte edo distantzia hori joan dan, igaro dan denbora da. Denborak bihurtzen ditu lehenengo gauzak, batzuk traste zahar eta beste batzuk altxor baliotsu eta gorde beharreko. Denbora da maisu edo gidari ona, zer dan balioko eta zer ez dan agertzeko, baina denborak dana iruntsi eta ahaztu eragiteko ahalmena be badauka. Beraz, denbora, haizea legez, alde nahiz kontra izan geinke. Karlos Ibarzabalek alde izan dau. Eta behar dan distantziatik hartu deusku Felix Zubiaurren edo lagun arteko Felizierren, irudia. Baina gure pertsonaia hau ez da agertzen hor izar batetik eskegita, bere ingurunean baino, hau da, Mesterikan, Meñakan, Sollubepean, beste batzuk inguruan dituala. Halan, inguru honetan, bakarrean bere pentsamenduen olatu artean; lagun artean beste batzuek hartu-emonetan, herriko saltsan, politikoak begitan hartuta, goikoakaz kontrastean eta igurtzika, landu eban Felixek bere espiritu ernea eta eiho bere dialektika zorrotza. Inguruak, Sollubepeko haizeak, alboko lagunak... moldatu



eben Felix izan zan modukoa, eta era berean, berak emon eutsan hemengo bizitzari aparteko airea, grazia.

Mesterikan, Meñakan, inguru osoan, Sollubepeko airean hegaz legez geratu ziran haren pasadizo, esaera, arrazoi biribil eta berba errimatuak. Esango neuke Felix Zubiaurren estiloaren esentzia edo holakoa lotu dala hemen. Baina hareetatik betiko gauza gitxi baino ez ziran aitatzen ahoz-ahozko kontuetan. Zorionez, izan dira gure artean Felix Zubiaur komediante xelebre eta arlotzetat gutxietsi beharrean, estimatu dabenak, haren jenio-izaerari erreparatu deusienak, haren esaerak pozik entzun eta gogoan hartu dituenak. Horreen izenak ageri dira Karlos Ibarzabalen sarreran. Testigu horreek iturri oparoa izan dira gure pertsonaiaren liburu hau osotzeko eta Karlosek be horrengana jo dau ezinbestean, harek eihoriko urun umorezko ziritsua herriari eskaini ahal izateko. Julian Lauzirika, Santi Legarreta, Iñaki Aurrekoetxea eta beste hainbat dira. Juantxu Egia be gure pertsonaiaren artxibo bizietariko bat ei zan hemen egoan bitartean, baina gure artetik joatean, Felixen kontuak beragaz eroan zituan betiko...



Iñaki Sarriugartek, Felix Zubiaur bizi zala ezagutu barik, hemengo orrialdeetan barneratuta eta ezagutu ebenei entzunda, hitzurre guztiz polita eta interesgarria eratu deusku. “Laratzuaren inguruko kultur sua hauspotzen, bizitzen” dau izenburua. Poz-pozik irakurri dot atal hori, gure protagonistaren sasoiko eta adineko pertsonak gogoan

dogun txikitako kultura giroan ezin hobeto sartzen gaitualako. Hemen "laratzauren inguruko kultur sua" telebistaren aurreko kulturagaz kontrastean agertzen deusku Iñakik. Osterantzean, Felix Zubiaurren lekuak gehiago izan dirala, esango neuke, barberia, tabernak, ganadu-tratuko feria eta kortak. Ataltxu hau aukeratu dot Iñakiren hitzaurre gozotik:

Orain ez dago laratzurik gaurko etxeetan, baserrietan be gitxi. Gaur nekez sortu geinke "Hori bere etxeko laratzuak ezagutuko dau" lako esakunerik. Hauspoak be, urri be urri topatuko doguz baserri zein garaiteko etxebizitzetan beheko su tradizionala bizitzen. Baina laratzauren eskola horretan bizi izandako euskaldun horreen mundua ezagutuazotea merezi daualakoa daukagu. Urrun, asago joan barik, inguruotako tradizioa batuaz, beste Auspoa bat izan geinke bizkaitarrok. Hau da, Aita Zavalaren ereduari jarraituaz, tokian tokiko hauspo zahar txikitxuak –ipuinak, bertsoak, baladak, ume-kantak, ohiturak, sinesmenak, atsotitzak, esaundak...– batuko bagenduz, pentsatu ezin ahalako altxorra eskuratuko geunke gaurko euskaldunok eta, era berean, berebiziko oparia itxiko geunskie hurrengo belaunaldiei. Karlos Ibarzabalen Phelixier Meñakako igarlea liburu hau, duda barik, katebegi bat gehiago dogu oraintsura arte iraun dauan –eta neurri txiki baten, oraindik iraun dirauan–, gizarte tradizional horretako balioen berreskuratze bidean. Gaurko euskaldunoi material horreek geure beharri-zanetarako moldatzea eta erabiltea jagoku, atxinerik jatorkun aberastasun-kate hori eten ez dakigun.

Eta zer esan liburuaren egileari buruz? Ondo daki-gu idazteko ohitura apur bat dogunok zein nekagarria eta

gaitza dan buruan erdi galdurik ditugun lehengo gauzen aztarrenak polito-polito batu eta paperezko lekutxu honeetan tolestea. Hemen, gainera, merezimendu handiagorik be badau Karlosek. Zer? Gauza bat da norbere gogoetak, pentsamenduak, gomutak idatziz polito agertzea eta beste bat ahoz aho eta ahozko klabean bakarrik erabiliak diranak idatzizkoan, berezko grazia eta bizitasuna galdu barik, euskera txukun eta duinean agertzea. Gorago esan dodanez, Felix Zubiaurren iturburura jo eban, haren kontuen jakitun ziran testiguengana. Baina hareek kontuz-kontuz batzeaz ez dago dana eginda. Hori materiala da. Hau da, pasadizo, esaera, arrazoi biribil eta berba errimatuak batzeaz bakarrik ez da nahiko. Bertsoaritzan –eta horretan aditua da Karlos-hormea eta harri-piloa bereizten ziran. Hormea egin behar da eta ez bakarrik harri piloa. Errimadun berbak edozelan ipinita harri-piloa dira; bertsoan taxuz eta jasez josi behar dira. Hori egin deusku Karlosek: Sollubepeko airean eta testigu askoren gomutan lauso artean legez egoana kurioso-kurioso batu, apur bat orraztu, jantzi. idatzizko klabea ekarri eta, kontalari moduan, lotura eta batasuna emon.

Hasieran, beharbada, pauso ziurrak emon ezinik, Juan Luis Goikoetxea eta nigana jo ebala dino berak. Guk gogoa berotu ei geuntsan aurrera egiteko. Halan bada, asko pozten naz, hain emaitza ona lortzeko proba-harriari lehengo zarrea emoten lagundu badeutsagu..."

Luis Baraiazarra Txertudi
(Meñaka, 2009-06-06)





ikusezazu.com

euskera teknologiarekin bilduz

www.ikusezazu.com

Filmak, dokumentalak, marrazkiak... euskaraz ikusteko web gunea dogu www.ikusezazu.com
 Hainbat urtetako bilduma lanaren ostean aurten jarri da martxan eta denpora gitxian ikus-entzun bilduma ikaragarria bilakatu da; danetarik daukogu bertan: film klasiko zein modernoak, animazio filmak, dokumentalak, teleaiolak...
www.ikusezazu.com debaldeko kultur zerbitzua da, web gunean azaltzen diran bideo guzti-guztiak on-line ikusi edota deskargatu leitekez !!! Erabiltzaileak aukera dauko, gura izan ezker, ikusitako filmeei buruzko eretxi eta iruzkinak foroetan argitaratzeko (ikusezazu.com/foroak).



IKUSIENAK

- Fernando Amezketarra
- Dragoi bola
- Heroiak
- Tintin
- Chihiroren bidaia
- Nomadak TX
- Txirrita
- Hirukiak

AZKEN ARGITARAPENAK

- Patxi errementaria
- Jack, Amazoniako erregea
- Lucio anarkista
- 18/98 auzia auzi
- Kalabaza tripontzia
- Lau haizetara
- Gazteak
- 1968ko maiatza


batman - heidi - terminator - ametsen lapurra - bean - aski da - balto - momo - babe - charli eta - isidoro - roger rabbit - jazarpen hilgarria - rambo - heroiak - kronokrimenak - terminator - x-men - ninja - dragoi bola - mitologia - asterix - tartalo eta artzaina - lolo untxi ezberdina - gazteak - tintin - mitoak - ERROMA

Gmail euskaraz !!

Asko eta asko oraingo jakitun egon zarien arren, hemendik gogoraz gura deusuegu Googlek e-posta zerbitzua euskeraz eskaintzen deuskula. Pozgarria benetan, google bezalako multinazional batek euskaldunok aintzat hartzea!! Orain erabiltzaile euskaldunoi tokatzen jaku etekina ateratzea.

Konbit egiten deusuegu hemendik Gmail posta zerbitzua euskaraz erabiltzeko, erraz-erraz da, minutu bateko kontua.

Zelan egin? Izena eta pasahitza sartu eta Gmaileko kontura sartuko zara. Orrialdearen goikoaldeko eskuinaldean azaltzen dan "Configuración" delakoan Klik egin eta "Idioma de Visualización de Gmail" aukeratu. "Español" agertzen den zerrenda horretan euskara hautatu eta Listo!!!



TELEFONOAK BADAKI EUSKARAZ ANIMA ZAITEZ!

Eusko Jaurlaritzak eta hainbat telefonia operadore nahiz fabrikatzailek lankidetzarako bi hitzarmen marko sinatu ebezan 2007an, telefonia mugikorraren arloan euskerearen erabilera sustatzeko.

Hauetara hitzarmenak sinatu ebezan enpresak: Alcatel, Eroski, Euskaltel, Nokia, Orange, Samsung, Sony Ericsson, Telefónica, Vodafone eta Yoigo.

Hitzarmenetan aurreikusitako konpromisoak betetze aldera, Eusko Jaurlaritzak urte hasieran jarri eban telefonia mugikorraren arloan euskerearen erabilera sustatzeko publizitate kanpaina, "Telefonoak badaki euskaraz. Anima zaitetz!" lelopean. Horregaz batera, menuak euskeraz eskaintzen dabezen telefonoen zerrenda osatu da.

Telefonoa euskaraz konfiguratu gura dozula? www.euskara.euskadi.net/lanhitz helbidean aurkituko dozu hizkuntza aukeren artean euskara be badakuten telefonoen zerrendea.



MEÑAKA



Karlos Ibarzabal Sarriguarte, (Bilbo, 1951) bere gazte denbora osoa Soietxen - Arrieta, Gamiz, Frunizeko gurutzean- baserri giroan emon nebana eta gaur egun Mungian bizi nazena.

Goi mailako ingeniari-tza ikasketak burutu nebazan Billboko eskolan. Enpresa pribatuan lanean hasi eta hori dot ogibidea.

1.- Kultura munduagaz ze hartu-emon izan dozu?

Garai latzak ziran 70ko hamarkadan bizi izan genduzanak, baina argi apur bat ikusten hasi ginanean, Auzoetako jaien antolakuntzan ibili nintzen urte askotan, batean bertso saioak, bestean bakarlarri edo talde euskaldunak eta horretan. Handik sortu jatan Herri Irratiko "Gaurko Barriak" euskaraz Bilbon egin zan lehenengo saioetan esatari moduan parte hartuteko aukerea, Franco ondino bizirik egoan garaietan.

2.- Eta bertso munduan bere bai ez da?

Amurizak lehenengo txapela irabazi ebanean, 80ko hamarkadan buru-belarri sartu nintzan bertso munduan eta parte hartu kantari, gai jartzaile eta epaile moduan. Helduen bertso eskolen sortzaile -Mungia, Algorta, Derio, Zamudio eta inguruetak herrietan- eta luzaro ibili nintzan, hemendik-hara, irakasle moduan.

BBIE (Bizakaiko Bertsolari Ikasleen Elkarte) sortu genduan eta ni idazkari nintzan garaian legezatu zan, gerora Bertsozale Elkartearen oinarria izango zana. Ostera, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen Lehendakaria izan nintzanean jarri zan martxan era modernoan eta gaur egun hain arrakastatsua dan Bizkaiko Txapelketa Nagusia. Euskal Herriko Txapelketa Nagusian bere, antolaketa ardua Euskaltzainditik Bertsozale Elkartera aldatu zaneke komisioan egon nintzan.

Gaur egun, bertso munduan segitan dot, baina gehien bat, bertso jarriak edo idatziak dodaz gogoko eta horretan segitan dot, bai.

3.- Noiz pentsatu zenduan Phelixierri buruz idaztea?

Idazle moduan, ez neukan esperientzia handirik. Phelixier liburu honen aurretik, eritzi artikuloak, hitzaldi bakan batzuk eta argitaratutako relato laburrak dodaz aurrekari moduan. Relato labur honek batuten nenbela, Phelixier zalako honen pasadizo ugari agertuten ziren han-hor-hemenka eta nik apuntau eta gorde. Halanda bere bildur nintzan liburu bat egiteko beste aurkituko ete nebazan, eta Xanti Legarretagaz, Julian Lauzirikarengana joan nintzanean, honek baieztatu eustan, bat ez hiru liburu betetuteko beste bere aurkituko genduzala. Eta halantxe izan da, ehun pasadizo edo ekintzatik gora aurkitu eta jarri doguz liburu honetan.

4.- Eta noiz lanari heldu?

Esandako moduan, hasierako ideia eta datu bakan batzuk ba-

neukazan baina batuketa serioa iazko udan. Gero, konturatu nintzen, ekainaren seian beteko ebazala ehun urte bizi izan bazan, eta aurkezpena egun horretan egitea, egokia eta polita izango zalakoan, atzeratu egin da inprimaketa. Esandako moduan, Ekainaren seian Meñakan aurkezpena egiteko asmoa daukagu, jaiotzaren mendeurrena aprobetxatuz.

5.- Zelakoa izan da meñakarren aportazioa?

Kanpotik bere istorio batzuk batu ahal izan dodazen arren, gehienbat Meñakan eta meñakarren ahotik batutakoak dira. Istorio eta esakune bakoak -danak ez baina gehienak- bere pertsonajeak eta bere kontextuan egokitu ahal izan doguz eta hori polita da herriko pertsona ezagunak direlako. Hortik aparte, informatzaileak emondako datoak, bere berean itxi doguz era herrikoian erakargarriagoak eta zuzenagoak izango direlakoan, sentimentuak -haserrea, maitasuna, gorrotoa- hobeto ulertuko direlakoan. Lastimea ahoskerako erregistroak ezin papelean azaldu, nahiz eta ahalegindu garan. Eta esker bereziak, Meñakako udalari, bere alkate Aitor Ugarte buru dala, eskainitako laguntzagatik.

6.- Zelako Phelixierren irudia aurkitu dozu?

Esan behar da nik ez nebala Phelixier fisikoki ezagutu eta horregatik eskatu neban Luis Baraiazarra, ezagutu ebanaren eta Asier Legarreta, beran entzute handia eukanaren laguntza liburu osotuteko. Gero amaitu eta irakurri ostean, Iñaki Sarriguartek, ez eukanak ezagutzarik ez entzuterik, egin dau liburuaren sarrera. Aurkitu dogun Phelixier, bere garaian titiritero eta arlo-te moduan katalogatua, era berean maitatua eta gorrotatua, ez dago dudarik jenio bat izan genduala. Bere esakunek, gehienetan errimatuak, euskeraz nahiz erderaz, zorrotasun handikoak eta gertatu danaren edo gertatuko danaren aurrerapena izaten ziran ia beti. Horregatik jarri jako Phelixier Meñakako igarlea izen moduan liburuari. Igarlea zentsu askotan izan gendualako. Ganera, teatro egile fina bere izan genduan, erabili ebazan forma satirikoak kontutan hartuta, baina batez bere, gai edo trama arriskutsuak erabilten ebazalako, ziren garai hareetarako.

7.- Zein da zure hurrengo egitasmoa?

Holako istorio laburrak batuten segiduko dot, herrikoiak eta atseginak diralako. Beste alde batetik, etxean pilatuta daukadan bertso papelen inbentarioa egin, ordenatu eta atonduten nabil momentu honetan ea zerk urtetan dauan bertatik.

Karlos.

UMEEN TXOKOA

-Kirola gustatzen jatzu?
-Egiten dozu kirolik ? Ze kirol ?
-Kirola egiteari ze alde positibo ikusten deusazu?
-“Batek irabazteko besteak galdu egin behar”; zuri zeuri partida bat galtzea suertatzen jatzunean... zelan hartzen dozu? zer egiten dozu ??



NEREA MUSATADI ROJO (Arrieta)

1. Bai, asko, oso kirolaria naz.
2. Bai, futbola, patinajea, igeriketa, saskibaloia,
3. Ondo pasatzen dodala eta lagunak egiten dodazala.
4. Irabazten dodanean oso pozik eta galtzen dodanean ez hainbeste baina norbaitek galdu egin behar dau.



BITTOR MUNIOZGUREN AROSTEGI (Gamiz-Fika)

- 1.- Bai ,asko.
- 2.- Bai. Futbola gehien bat.
- 3.- Lagunakaz jolasten dogu.
- 4.- Bardin doste galtzen badogu, ze askotan irabazi egiten dogu.



GORKA VENTURA BILBAO (Fruiz)

- Bai.
- Bai, futbitoa egiten dot.
- Lagunak egiten dodaz eta gimnasia egiten dot.
- Txarto, eta hasarretuta egoten naz baina gero pozik.



KOLDO BELDARRAIN ETXEBERRIA (Meñaka)

- Bai, pilo bat.
- Bai. Futbito, Futbol zazpi eta esku pilota.
- Osasunerako oso ona dalako eta indarra lortzeko balio dualako. Eta gainera nekatzen zarenez hobeto egiten dozu lo.
- Partida bat galtzea suertatzen jatanean ez deusatz garrantzi handirik emoten, baina esan behar dot apur bat triste jartzen nazela.

DENPORA-PASAK

OSATU BERBAK



Ea zenbat
asmatzen
dozuzan !



ZERI ESATEN JAKO... GORRIÑE???

Galdetu etxean, auzoan, eskolan...
Hona hemen laguntzatxoa nondik
tiratu euki daizun.



Herria da gorputza, hizkuntza bihotza

ESAERA ZAHARRAK

- Lehorraldian euri eta bustialdian eguzki, eskean beti.
- Eguzkia eskuan eta ilargia nahi.
- Eguzkiak San Juanetan dantza.

(Atsotitzak, Gotzon Garate)

TXISTEAK

Amerikak egin

Aita-semeak kalean dagoz, eta aitak haxe esan dio semeari:


- Begira Mikel, ikusten dozu horko gizon hori?
- Bai.
- Gizon hori abarketa pare bategaz Ameriketara joan, eta 80 milioigaz etorri zan.
- Eta zer egin behar dau horrenbeste abarketagaz?

(www.euskaraz.net)



NON DAGO ATARATA ARGAZKI HAU? ARRIETAN, FRUIZEN, GAMIZ-FIKAN ALA MEÑAKAN? BAIETZ IGARRI !!!

(Aurreko zenbakiko argazkia: Meñakako Otuna jauregia)



SALUTADOREAK

Zazpigarren semea izan behar dau. Ez dau balio bitartean neskatorik badago, e! Izan behar dau... danak mutilak eta zazpigarren semea izaten da salutadorea. Eta horrek egiten eban ba... orioa irakiten ipini, eta gaixoak osatuteko sartu erkeroa, eskoako erkeroa oriotan eta kurutzeak egin eta osatuten ebalas esaten eben. (*Salutadore horreek ez eben ezer eukiten gorputzean?*) Bai, eskuen edo, kadaran edo. Kadarazpian pentsetan dot. Eta mihian kurutzea. Ume gaixoak osatuteko doia eukiten eben.

(*Eta beste doirik?*)

Putz eginda labasua amatetako.

(Jon Uriarte, Fruiztarak berbetan)



ZENBAKI HONETAN PARTE HARTU DABE:

OLATZ AXPE
JON GOIRIZELAIA
ALFREDO GONZALEZ
ZURIÑE GOTI
ASIER LEGARRETA
IRAIDE ZUGAZAGA

**ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA • MEÑAKA**

**EUSKARA ZERBITZUA
ZURE ESKU**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HIZKUNTZ POLITIKARAKO SAILORDETZA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura